



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

# Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri**

---

**Tolosa, 1960-2010**

---

(Bigarren edizioa)

**2016ko azaroa**

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizkidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

Euskal kasuan izandako  
**bizitzeko eskubidearen**  
**aurkako urraketen** argazkiak,  
**herriz herri**

---

**Tolosa**, 1960-2010

Bigarren edizioa

**2016ko azaroa**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



## Aurkibidea

---

Aurkezpena. 6

---

### I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

1. ETAm, Komando Autonomek eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
  2. GALek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 33
  3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 37
- 

### II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**. 39

---

Erabilitako iturri eta zerrendak. 43

---

---

## Aurkezpena

---

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

*Erretratu* bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

*Aitortutako biktima* horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzazieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutzat dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrenean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezur-mamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.





---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 1. **ETAm, Komando Autonomoek** eta **ETA**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

1

# Antonio Galán Aceituno

---

**Data:** 1977/04/29.

**Adina:** 47 urte.

**Non jaioa:** Castilblanco (Badajoz).

**Destinoa:** Hilabete baino gutxiago zeraman Tolosako kuartelean.

**Seme-alabak:** Hiru alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko sarjentua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Gorosabel kaleko BHArean sukurtsalean.

**Prozedura:** Lapurreta-saio batean elkarri botatako tiroak.

**Datu gehigarriak:** ETApn-ko komando batek orduantxe egin berri zuen lapurreta, eta Guardia Zibila sukurtsalean zegoen.

# 2

## José Acedo Panizo

---

**Data:** 1978/03/10.

**Adina:** 56 urte.

**Non jaioa:** Camarzana de Tera (Zamora).

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Adunako Aplicaciones Técnicas del Caucho (ATC) enpresako zinpeko zaintzaile eta atezain-burua. Bi hilabete ziren Guardia Zibiletik erretiratu zela, sarjentu lehena eta Andoaingo postuko buru izan ondoren.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Adunan lan egiten zuen enpresan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 3

## Antonio García Caballero

---

**Data:** 1978/06/21.

**Adina:** 32 urte.

**Non jaioa:** Rueca (Badajoz).

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Tolosako udaltzaina, CCOO sindikatuko afiliatua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Bidebieta auzoan bizi zen etxetik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 4

## Mariano Criado Ramajo

---

**Data:** 1978/11/05.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Cáceres.

**Destinoa:** Tolosako Guardia Zibilaren kuartela.

**Seme-alabak:** Emaztea erditzeaz zegoen ospitalean.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kaporala.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Berazubi futbol-estadiotik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Zaurituak izan ziren beste guardia zibil bat, Antonio Pinel Romero, eta 12 urteko mutiko bat, Jesus Orbegozo Beristain.

# 5

## Esteban Sáez Gómez

---

**Gertaeren data:** 1979/01/29.

**Heriotza-data:** 1979/02/04.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Galinduste (Salamanca).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako San Kosme eta San Damian klinikan.

**Prozedura:** Urrutitik eragindako lehergailua, Tolosako saihezbidean.

**Datu gehigarriak:** Larri zauritu zen guardia zibil bat, Manuel Ruiz Ligerero, eta beste hainbat arin zauritu ziren.

# 6

## Adolfo Mariñas Vence

---

**Data:** 1979/04/06.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Langabea.

**Egilea:** Txikia Komando Autonomoa.

**Heriotza-lekua:** Tolosako San Joan kalea, goizaldean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua. Hiru tiro jota.

7

Juan  
Batista  
García

---

**Data:** 1979/04/17.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Las Palmas Kanaria Handikoa.

**Destinoa:** Tolosako destakamentuko Trafikoko Taldea.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Irun aldeko errepide ertz batean larri zaurituta zegoela kamioilari batek hartu eta ospitalera bidean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua. Bularrean tiro bat jota.



# 8

## Andrés Antonio Varela Rúa

---

**Data:** 1979/06/07.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Ourense.

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Udaleko funtzionarioa. Infanteriako komandante erretiratua. Polizia Armatuko kapitain ohia. Matematika irakasten zuen Tolosako Eskolapioen Ikastetxean. Tolosar batekin ezkondua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Loiola kalea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 9

## Aurelio Prieto Prieto

---

**Data:** 1980/11/21.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Llerena (Badajoz).

**Destinoa:** Donostiako Komandantzia.

**Seme-alabak:** Lau hilabeteko alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak (CCAA).

**Heriotza-lekua:** Tolosako Izaskungo Amaren basilizan.

**Prozedura:** Ustekabeen bi susmagarriekin topo egin eta su-armaz egindako tiroak.

**Datu gehigarriak:** Beste bi guardia zibil zauritu ziren: Eduardo Izquierdo Marfil, oso larri, eta José Blasco.

# 10

## Juan Costa Otamendi

---

**Data:** 1981/03/27.

**Adina:** 34 urte.

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Igeltseroa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Aldaba auzora daraman errepidea.

**Prozedura:** Bahitu, galdekatu eta su-armaz tiro eginda hil zuten.

**Datu gehigarriak:** Tolosako Peoples tabernatik irteten harrapatu zuten, Mari Lurdes Gabarain izeneko lagun batekin zihoala. Biak bahitu eta auto batean sartu zituzten; emakumea, maleta-tegian. Alegia ondoko bazter batera eraman zuten, Aldabako errepidean. Juan Costa autotik aterarazi, galdekatu eta tiro jo zioten buruan.

# 11

## Iñaki Ibargutxi Erostarbe

---

**Data:** 1981/06/24.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Ugao (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Irailean zen ezkontzekoa Zornotzako emakume batekin.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Merkataritza-agentea. Euskara ikasteko liburu, kasete eta materialen etxez etxeko saltzailea. EGIko kide izan zen eta EAJkoa zen.

**Egilea:** ETAk ez zuen bere gain hartu, eta BVEk bai, baina besterik erakusten dute frogak eta egileetako baten kontra egindako epaiketak.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Beti Alai tabernatik irten eta autora zihoala, beste bi saltzailerekin batera.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Durangoko bi anaiarekin egiten zuen lan, Juan Manuel eta Pedro Conrado Martínez Castaños, eta haiak ere bertan hil zituzten. Hasieran BVEk hartu zuen bere gain, baina berehala zabaldu zen ETAm-en hutsegitea izan ote zen. ETAk beti ukatu zuen. *Eginen* "Euskadi 1977-1982" k dioenez, handik bi egunetara "nahasmena dago Tolosako atentatuaren aurreko erreakzioetan. Durangoko hiletan izan ziren Eusko Jaurlaritzako eta HBren Mahai Nazionalako kideak" (113. or.). 1986an Tolosako udaltzain bat kondenatu zuten ustezko egileei aterpea emateagatik, baina ez da beste epaiketarik ezagutzen. Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen. 2014ko ekainean, Ugaoko Udalbatzak mozio bat onartu zuen herriko semea oroitzeko eta omentzeko.

12

## Juan Manuel Martínez Castaños

---

**Data:** 1981/06/24.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Durango (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Merkataritza-agentea. Euskara ikasteko liburu, kasete eta materialen etxez etxeko saltzailea. Ekonomia Zientziak ikasi zituen Bilbon.

**Egilea:** ETAk ez zuen bere gain hartu, eta BVEk bai, baina besterik erakusten dute frogak eta egileetako baten kontra egindako epaiketak.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Beti Alai tabernatik irten eta autora zihoala, beste bi saltzailerekin batera.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Pedro Conrado naiarekin eta Ugaoko lagun batekin, Iñaki Ibargutxi Erostarberekin, aritzen zen lanean. Haiek ere hil zituzten. Hasieran BVEk hartu zuen bere gain, baina berehala zabaldu zen ETAm-en hutsegitea izan ote zen. ETAk beti ukatu zuen. *Eginen* "Euskadi 1977-1982" k dioenez, handik bi egunetara "nahasmena dago Tolosako atentatuaren aurreko erreazioetan. Durangoko hiletan izan ziren Eusko Jaurlaritzako eta HBren Mahai Nazionaleko kideak" (113. or.). 1986an Tolosako udaltzain bat kondenatu zuten ustezko egileei aterpea emateagatik, baina ez da beste epaiketarik ezagutzen. Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen.

# 13

## Pedro Conrado Martínez Castaños

---

**Gertaeren data:** 1981/06/24.

**Heriotza-data:** 1982/03/28.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Durango (Bizkaia).

**Bizilekua:** Basurto, Bilbo (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Merkataritza-agentea. Euskara ikasteko liburu, kasete eta materialen ethez etxeko saltzailea. Euskadiko Partidu Komunistako (PCE-EPK) kidea zen.

**Egilea:** ETAk ez zuen bere gain hartu, eta BVEk bai, baina besterik erakusten dute frogak eta egileetako baten kontra egindako epaiketak.

**Heriotza-lekua:** Ospitalea, bederatzi hilabetez heriotzaren kontra borrokan arituta, anaiarekin eta lagun batekin batera Tolosan zauritua izan ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Juan Manuel naia eta Ugaoko lagun bat, Iñaki Ibargutxi Erostarbe, ere hil zituzten. Hasieran BVEk hartu zuen bere gain, baina berehala zabaldu zen ETAm-en hutsegitea izan ote zen. ETAk beti ukatu zuen. *Eginen* "Euskadi 1977-1982" k dioenez, handik bi egunetara "nahasmena dago Tolosako atentatuaren aurreko erreakzioetan. Durangoko hiletan izan ziren Eusko Jaurlaritzako eta HBren Mahai Nazionalako kideak" (113. or.). 1986an Tolosako udaltzain bat kondenatu zuten ustezko egileei aterpea emateagatik, baina ez da beste epaiketarik ezagutzen. Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen.

14

## Juan Ramón Joya Lago

---

**Data:** 1982/12/12.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Melilla.

**Destinoa:** Bere familiarekin batera bizi zen Tolosako kuartelean.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Gorriti plazatik gertu. Bere auto partikularra semaforo gorri batean gelditu, eta metrailatu egin zuten beste auto batetik.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste agente bat larri zauritu eta ebakuntza egin zioten Donostiako Gurutze Gorrian: Francisco Vázquez Bolaños.

# 15

## Miguel Mateo Pastor

---

**Data:** 1983/02/02.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Elda (Alacant).

**Destinoa:** Tolosako Guardia Zibilaren kuartel-etxea.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Terrorismoaren aurkako Landa Taldeko (UAR) guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Ospitalera bidean, larri zauritua izan ondoren, Oiangu menditik Guardia Zibilaren bi ibilgailuri gerra-gurdiaren kontrako granadekin egindako eraso batean, Ordizia eta Beasain artean.

**Prozedura:** Su-armaz eta granadaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean beste bi guardia zibil zauritu ziren: José Bueno Fernández eta Custodio Contreras de la Rosa, biak 23 urtekoak.



16

## Joaquina Patricia Llanillo Borbolla

---

**Data:** 1983/02/12.

**Adina:** 32 urte.

**Non jaioa:** Santander.

**Bizilekua:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme. Haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere auto barruan, Tolosako Andia kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Senarra, José Luis Alonso Álvarez, 38 urteko ikertzaile pribatu donostiarra, larri zauritu zuten bularraldean bi tiro jota.

17

## Francisco Arin Urkola

---

**Data:** 1983/12/15.

**Adina:** 49 urte.

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Enpresaburua. Construcciones Electromecánicas Arin enpresako zuzendaritzako kidea.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak (CCAA).

**Bahiketaren lekua:** Tolosako bere etxea.

**Heriotza-lekua:** Irurako sarrerako autopistatik hurbil, bere autoko maletategian, buruan tiroak jota.

**Prozedura:** Bahiketa, estortsio-saiakera eta su-armen bidezko hilketa.

**Datu gehigarriak:** Familiaren hitzetan, CCAAk ez ezik ETAm-k ere eskatu zion "iraultza-zerga" delakoa (*El País*, 1983/12/16). Berez, Francisco Arin bitan jarri zen harremanetan ETAko kideekin Iparraldean, eskatzen zioten dirua ez zeukala esateko. Bietan erantzun zioten kontua "konponduta zegoela" (*Vidas Rotas*, 463. or.). Gerora, etxe-aurrea tirokatu zioten. Ez zen jakin nor izan zen.

# 18

## Juan José Pacheco Cano

---

**Data:** 1988/10/16.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Cáceres.

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaina.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** ETAREN abisu baten ondoren, Brinkolan, Legazpiko tunelaren parean Irun-Madril trenbidea ikuskatzen ari zela.

**Prozedura:** Bonba bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Guardia Zibila joango zela pentsatzen zuen ETAK. Atentatua bere gain har-tzerakoan esan zuenez, helburua ez zen ertzainaren heriotza, "istripua" izan zen, Ertzaintza "ez baita, oraingoz, jomuga militarra" (*Egin*, 1988/10/20).

19

## Francisco Arratibel Fuentes

---

**Data:** 1997/02/11.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elikagaien sektoreko enpresaburua, Master Catering enpresaren jabea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Tolosako alde zaharrea, inauterien erdian.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua. 12 urteko semearen aurrean.

**Datu gehigarriak:** 1996an ETAREN beste atentatu bat jasan zuen.

# 20

## Jose Luis Lopez De Lacalle

---

**Data:** 2000/05/07.

**Adina:** 62 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Andoain (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Seme bat eta alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** El Mundo egunkariko zutabegilea. PCEko eta CCOOko kidea izan zen. UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Andoaingo Ondarreta kalean, egunkariak erosi eta inguruko kafetegi batean gosalduta ondoren bere etxeko atarira sartzeaz zegoela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Lopez de Lacalle hil ostean, haren senitarteko eta lagunek Jose Luis Lopez de Lacalle Fundazioa sortu zuten.

21

## Juan Mari Jauregi Apalategi

---

**Data:** 2000/07/29.

**Adina:** 49 urte.

**Non jaioa:** Legorreta (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Txile. Oporretan zegoen Tolosan.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Aireportuetako Aldeasa denda-kateko langilea. Gipuzkoako gobernadore zibil ohia (1994-1996). PCEkoa eta CCOOkoa izandakoa, eta ondoren PSE-PSOEkoa. Tolosako Udaleko zinegotzia izan zen sei urtez.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** ETBko albistegietako zuzendari ohi Jaime Otamendirekin ari zen hizketan Tolosako Beotibar frontoiko kafetegian.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bere alarguna, Maixabel Lasa, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako zuzendaria izan da 2012ko abendura arte.

# 22

## Josu Leonet Azkune

---

**Data:** 2001/02/22.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Amaratz auzoa, Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hamar hilabeteko alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elektra enpresako langilea, Martutenen (Donostia).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostian, Martuteneko geralekuaren ondoan.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Martuteneko geralekuan trenetik jaitsi berri zen langile-talde bat auzo horretako industrialdeko lantokietara zihoazela lehertu zen bonba-autoa. Beste langile bat hil zen atentatu berean, Jose Angel Santos Laranga; atentatua, nonbait, Ordiziako PSE-EEko zinegotzi Iñaki Dubreuil Churrucaren kontra zihoan. Hark erredurak izan zituen aurpegian eta buruan, eta bizkartzaina ere zauritu zen. Larri zauritu ziren beste bi langile ere: Igor Larrea Olano eta Jose Ignazio Urrestarazu, eta beste bost ez hain larri, besteak beste Sandra Viejo Lorente, Maria Arantzazu Perez Cayetano eta Ignazio Urdangarin Mujika. ETAk "hutsegite konpenezina" iritzi zion bere komunikatuan.





---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 2. **GAL**ek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Jose Ignacio Zabala Artano

---

**Bahiketaren data:** 1983/10/15.

**Aztarnak agertu ziren data:** 1985/01/20.

**Gorpua identifikatu zen data:** 1995/03/17.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Baiona (Lapurdi).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ustezko ETAko militantea. 1981eko azaroan Baionan errefuxiatu zen, banketxe batean lapurreta egiten saiatu ondoren. EGAMeko kide izan zen.

**Egilea:** GAL. Sigla horiekin bere gain hartutako lehen ekintza izan zen.

**Desagertutako lekua:** Lapurdiko Baiona Ttipiko Tonneliers kalea.

**Prozedura:** Bahitu, torturatu, hil eta kare bizitan lurperatu zuten Alacanten.

**Datu gehigarriak:** Bertan bahitu zuten bere lagun Josean Lasa ere. Entzutegi Nazionalaren 1. Ataleko 2000/04/26ko 21/00 epaiak kondenatu egin zituen, besteak beste, Gipuzkoako gobernadore zibila eta Intxaurrendoko Guardia Zibilaren komandante-burua, hilketagatik eta atxiloteta ilegalagatik. Bertan berresten denez, bi gazteak Baionan bahitu ondoren Donostiako La Cumbra eraman zituzten, eta gobernuaren eraikin horretan torturatu zituzten hainbat guardia zibilek. Handik Busoteko Foya de Covesera eraman zituzten (Alacant), kare bizitan ehortzita gorpuak desagerrarazteko. Buruan tiro jota hil zituzten, eskuak lotuta, eta ahoa eta begiak bendatuta zituztela. Hilotzak kasualitatez agertu ziren 1985ean, torturaren ondorio ziren mutilazio nabariek, eta Alacanteko hilerriko deposituan egon ziren, harik eta 1995/03/17an identifikatu zituzten arte.

# 2

## Jose Antonio Lasa Arostegi

---

**Bahiketaren data:** 1983/10/15.

**Aztarnak agertu ziren data:** 1985/01/20.

**Gorpua identifikatu zen data:** 1995/03/17.

**Adina:** 20 urte.

**Non jaioa:** Aldaba Txiki baserria, Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Baiona (Lapurdi).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ustezko ETAko militantea. 1981eko azaroan Baionan errefuxiatu zen, banketxe batean lapurreta egiten saiatu ondoren. EGAMeko kide izana. Bateletan estatuko txapeldun, Aize Orratz elkartearekin.

**Egilea:** GAL. Sigla horiekin bere gain hartutako lehen ekintza izan zen.

**Desagertutako lekua:** Lapurdiko Baiona Ttipiko Tonneliers kalea.

**Prozedura:** Bahitu, torturatu, hil eta kare bizitan lurperatu zuten Alacanten.

**Datu gehigarriak:** Bertan bahitu zuten bere lagun Joxi Zabala ere. Entzutegi Nazionalaren 1. Ataleko 2000/04/26ko 21/00 epaiak kondenatu egin zituen, besteak beste, Gipuzkoako gobernadore zibila eta Intxaurrendoko Guardia Zibilaren komandante-burua, hilketagatik eta atxiloteta ilegalagatik. Bertan berresten denez, bi gazteak Baionan bahitu ondoren Donostiako La Cumbera eraman zituzten, eta gobernuaren eraikin horretan torturatu zituzten hainbat guardia zibilek. Handik Busoteko Foya de Covesera eraman zituzten (Alacant), kare bizitan ehortzita gorpuak desagerrarazteko. Buruan tiro jota hil zituzten, eskuak lotuta, eta ahoa eta begiak bendatuta zituztela. Hilotzak kasualitatez agertu ziren 1985ean, torturaren ondorio ziren mutilazio nabariek, eta Alacanteko hilerriko deposituan egon ziren, harik eta 1995/03/17an identifikatu zituzten arte.

# 3

## Juan Carlos García Goena

---

**Data:** 1987/07/24.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Hendaia (Lapurdi).

**Seme-alabak:** Hiru alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Hendaian babestu zen (Lapurdi), nahitaezko soldadutza ez egiteko. Transfesa enpresan lan egiten zuen.

**Egilea:** GAL. Talde honek eragindako azken heriotza izan zen.

**Heriotza-lekua:** Haren autoaren azpian jarritako bonba bat zartatu zen Hendaian (Lapurdi), lanera joateko kotxea abiarazten saiatzean.

**Prozedura:** Ibilgailuaren azpian jarritako bonba-laparekin egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Dirudienez, atentatuaren jomuga ez zen Juan Carlos García, haren bizilagun bat baizik, ustez ETApn-ko kide zen Juan Bautista Argote. Hori esan zuten Melchor Miralles eta Ricardo Arqués kazetariak. Informatzaile batek zulo bat non zegoen esan zien kazetari bioi. Zulo horretan, erabilitako bonbaren ezaugarri berak zituen bonba-lapa bat zegoen, bai eta atentatua erreibindikatzeko jatorrizko komunikatua ere, non pertsona hori aipatzen zen, eta ez García Goena. García Gonearen emazteak, Laura Martinek, kasua berriz ere irekitzeko eskatu zuen Entzutegi Nazionalan, 2011n.

---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Marcelo Gartziandia Aierdi

---

**Gertaeren data:** 1982/10/16.

**Heriotza-data:** 1982/10/19.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Alegia (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Galdaragilea. Pilotari ohia.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Gurutze Gorrian, Lasarte-Oria inguruan tiroz larri zauritu eta hiru egunera.

**Prozedura:** Kale-jantzian zihoan guardia zibil batek tiro egin zion, oso gertutik eta aurrez aurre, azterketa balistikoaren arabera.

**Datu gehigarriak:** Ospitalean hiltzorian eman zituen hiru egunetan zehar familiakoei eta adiskideei kontaktu zenez, ez zuen errepede-kontrolik ikusi ez saltatu. Autotik txiza egitera jaitsi zen, eutsi ezin ziolako. 1985eko maiatzean egin zen epaiketa Probintzia Auzitegian (Gipuzkoan Estatuko Segurtasun Indarretako kide baten aurka egiten zen lehenbizikoa), eta guardia zibil bati sei urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten. Familiak mehatxuak eta irainak jaso zituen telefonoz.

---

## II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**

---

# 1

## Txabi Etxebarrieta Ortiz

---

**Data:** 1968/06/07

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Bilbo (Bizkaia)

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Ekonomia Zientzietan lizentziaduna; bere promozioko lehenengoa. ETAko zuzendaritzako kidea; erakundearen bosgarren biltzarrean hartu zuen parte.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Larri zauritu zuten Benta Haundin, Tolosako erdigunetik kilometro batera (Gipuzkoa); herri horretako klinikara eraman zuten, eta ospitaleratu eta minutu gutxitara hil zen.

**Prozedura:** Su-arma batez.

**Datu gehigarriak:** Kasu honetan, oraindik ere argitu gabeko gauza asko dago eta bertsio kontrajarriak daude. Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa ETAko kideak auto batean zihoazela, Guardia Zibilaren motorista batek gelditzeko agindua eman zien Aduna eta Villabona artean; orduan, guardia zibilak ikusi zuen ibilgailuaren agiriak eta motor- eta txasis-zenbakia ez zetozeela bat. Une horretan, Txabi Etxebarrietak tiro egin zion Jose Antonio Pardines Arcay agenteari eta bertan hil zen. Ihesaldian, Tolosako laguntzaile baten etxera jo zuten babes bila; baina etxebizitza horrek segurtasun-baldintzak betetzen zituen ziur ez zeudenez, alde egitea erabaki zuten. Guardia Zibilaren kontrol batean atzeman zituzten Benta Haundin. Une horretatik aurrera, gertatu zenari buruzko bi bertsio daude. Guardia Zibilaren bertsioak dio Etxebarrietak bere pistola ateratzea lortu zuela, baina eskutatik kentzea lortu zutela tiro egin aurretik; Sarasketak bere armarekin tiro egin zuenean hasi zela tiroketa, eta orduan zauritu zela larri Etxebarrieta. Beste bertsio batzuen arabera, ordea, Txabi Etxebarrietaren burua horma baten kontra kolpatu zuten, eta zutitzen saiatzen ari zenean, erdi konorterik gabe, distantzia laburrera egin zion tiro guardia zibil batek.



# 2

## Jose Bernardo Bidaola Atxega

---

**Gertaeren data:** 1976/04/24.

**Gorpua agertu zen data:** 1976/05/28.

**Adina:** 22 urte.

**Non jaioa:** Lizartza (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** ETAko militantea. Lehenago, EGIko kide izandakoa. Tolosako Oargi elkarteko zuzendaritzako kidea.

**Egilea:** Argitu gabe.

**Heriotza-lekua:** Pirinio-aurreko Lizaieta, Etxalar (Nafarroa).

**Prozedura:** Argitu gabe.

**Datu gehigarriak:** Bertsio desberdinak dituen kasua da. Guardia Zibilak lau etakide inguratu zituen Etxalarko Lizaietan. Bik ihes egitea lortu eta beste biak zauritu eta atxilotu egin zituzten, lagunak arabera. Hurrengo egunean, komandoko kide bakarra atxilotu zutela esan zuten komunikabideek. Hori entzunda, desagertutako gaztearen lagunak haren bila aritu ziren Etxalar inguruan, baina ez zuten aurkitu. Maiatzaren 13an, ETApn-k komunikatu bat plazaratu zuen: "atxiloketaz geroztik 19 egun igarota, *Txirrita* bizirik aurkitzeko itxaropena hutsaren hurrena da". Maiatzaren 28ean hilik aurkitu zuten, haren lagunak lehenago miatutako leku batean. Bertsio ofizialaren arabera, bere buruaz beste egin zuen ("Los suicidios", *El Mundoren Bereziak*). Auzitegi-medikuaren txostenak, aldiz, bala-zulo bakarra zuela zioen, hankan, eta hilabete zeramala hilda. ETApn-ko kidea atxilotu eta galdekatzen ari zirela hil ote zen zabaldu zen, eta agertu zen lekuan utzi zutela (*Gernikako seme-alabak*, 2010: 650).



---

## Erabilitako iturri eta zerrendak

---

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, [www.abc.es/especiales/eta/victimas](http://www.abc.es/especiales/eta/victimas)
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), [www.argituz.org](http://www.argituz.org)
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). [www.arovite.com/bases-de-datos/](http://www.arovite.com/bases-de-datos/)
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.avt.org](http://www.avt.org)
- Barne Ministerioa. [www.interior.gob.es/](http://www.interior.gob.es/)
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.covite.org](http://www.covite.org)
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. [www.elpais.com/especial/eta/victimas.html](http://www.elpais.com/especial/eta/victimas.html)
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com)
- Eusko Jaurlaritz. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/)
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). [www.fundacionfernandobuesa.com](http://www.fundacionfernandobuesa.com)
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritz. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2008. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es)
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. [www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/](http://www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/)

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. [www.lbfundazioa.org](http://www.lbfundazioa.org)
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. [www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/](http://www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/)
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. [www.fundacionvt.org](http://www.fundacionvt.org)
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. [www.alava.net](http://www.alava.net)
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. [www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion\\_documentos\\_interes/es\\_document/adjuntos/informe%20final.pdf](http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf)
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.